

## ITZALEN HITZAK

Johanna Ramirez Romero

*Lesaka*

Ohe huts baten berotasun faltsuan  
esan zenidan egun hartan  
gera gintezen beti gaua balitz bezala,  
itzalen hitzetan.

Hitz xamurren itsutasun hartan  
inoiz ez nuen aukera izan,  
bake edo guda hautatzeko,  
itzalen hitzetan.

Ezin giltzapetu ibili naiz  
ezkutuko sentimendu hura  
eta gogamenek ez dute laguntzen,  
itzalen hitzetan.

Hareak bezala  
denborak estali du gure bidea,  
jada ezin dugu aurrera egin  
Itzalen hitzetan.

Konturatzen naiz gaur  
entzun nahi nituenak zirela  
egia faltsu horiek zure ahotik,  
Itzalen hitzetan.

Sarritan pentsatu izan dut  
esan ziren gezur haien egiaz,  
kontraesan guzti haiez,  
itzalen hitzetan.

Inoiz ez dugu aukera izan ikusteko  
konturatu gabe elkarri  
min egin genionean,  
itzalen hitzetan.

Esan genituen guztien esklabo,  
ez dizut sekula ukatuko  
damutzen naizela gauetan,  
itzalen hitzetan.

Banekien benetan,  
ez zutela merezi inolaz  
garrasi eta oihu haiek guztiek,  
itzalen hitzetan.

Ukatu zaizkit orain  
egun haietako malkoak,  
baina haiekin batera barreak,  
itzalen hitzetan.

Ohitu beharko naiz  
sinisten nuen guztia ukatzera,  
gaur begiak irekitzera,  
itzalen hitzetan.

Nire buruari galdetzen diot sarritan  
zer geratzen ote den  
izan ginen hartaz,  
itzalen hitzetan.

Sortzen ari garen distantzia hau  
ez da nahikoa izanen  
iraganari ate guztiak ixteko,  
itzalen hitzetan.

Beranduegi da jada  
esan ez genituen egia guztiak  
elkarri aitortzeko,  
itzalen hitzetan.

Nitaz askotan oroituko zaren,  
beste baten begietan galduta  
noraino iritsiko ote zaren  
itzalen hitzetan.

Urte berriarekin batera  
iritsiko da aukera,  
eginiko promesak hautsita,  
itzalen hitzetan.

Bakardadeari zin egin diot orain  
ez naizela sekula gehiago eroriko  
hain ederrak ziruditen esanetan  
itzalen hitzetan, gezurretan.